

Argiak iluntasunean: ez gaude bakarrik

Gaua iluntasunaren sinboloa da, ezezagunarena, lanpara bat eta bidelagun bat ez baditugu, aurkitzea lortzen ez dugun argi horren faltarena. Gaua da gure planeta inguratzen duena, seni-arteko borrokengatik zauritua eta bortxatua, oraindik ere antolatzen diren gerrengatik, botere eta diru gutizia direla eta. Gaua da, halaber, injustizien eta gehiegikerien aurka oihu egiteko jadanik ahotsik ez duten milioika lagunek bizi dutena.

Eta gu? Nola jarraitu sinesten gure itxaropenen arabera agertzen ez den mundu berritu horretan? Nola antzeman eguneroko harremanetan dagoen on guztiaren zeinuak? Beti erantzuten ez dakizkigun galderak dira, baina beti ikusten ez dugun bidelagun bat bilatzera bultzatzen gaituztenak, gizakiak berezkoa duen espiritualtasunaren behar unibertsala onartzera, elkarrekiko maitasuna gure artean biziz gero presente egin daitekeena.

Batzuetan argi-dirdira laburrak dira, modurik ustekabeenetan distira egiten dutenak, baita sare sozialen bidez ere, gaua argitzen dutenak. Chiara Badano eta Sara Cornelioren istorioa bezala, denboran zehar bi lagun.

Sara, 1998an jaioa, oraindik ia neskato bat zelarik, Chiara “ezagutu” zuen, 1990ean 19 urterekin hil zena, bere bizitza historia harrigarria kontatzen duten topaketa ugarien bitartez. Adiskide, ametsetako kide, lagun-min eta presentzia indartsu gisa zuen. Sara bizi, kantatu, dantzatu, ikasi, lagunak izan, hazi, liluratu egiten den gaztea da. Aldi berean, sortzetiko gaixotasun baten egunerokotasuna bizi du, “arnasa kentzen diona” – literalki -. “Maitasunak dena gainditzen du”en (batxilergoko amaierako bere lanaren gaia) ziurtasunarekin bizi da; birika transplante baten dohaina bizi du eta bera bihurtzen da dohain, testigantza emango duena liburuekin, eskoletan topaketak, musika piezak eta film laburrak, blog bat eta antzerki emanaldi bat.

Bere familia zoragarriaz gozatzen du, maitemintzea eta maitasuna. 2022an hil zen, 24 urte zituela, eta harrituta eta bakartuago utzi ditu maite izan zuten guztiak, baita Facebooken bitartez ezagutu zutenak ere.

Lur honetan bizi izan duen bizitza betean Sarak adiskide du Chiara, beti gertukoa, lagundu, animatu eta eusten duena, eta une eta abagune pentsaezinagoetan “agertzen” dena: “alboan egoten” dakiena, bai alaitasun hutseko uneetan nahiz ospitale baten edo zainketa intentsiboetako unitate baten min eta bakardadean.

Azken uneetan, bakardadean eta ahulezian, Chiararen presentzia misterioetsuki isila bihurtzen da, ia ihes egiten dio, baina horrexegatik hain zuzen ere benetakoagoa eta “betirako” adiskidetasuna izatera destinatua.

Chiara eta Sara: bakarrak, istorio bakoitza bakarra den bezala.

HILEKO IDEIA, Fokolareen Mugimenduko “Sinesmen ez erlijiosoak dituzten pertsonen elkarrizketarako Zentroak” egiten du. 2014an Uruguain jaiotako ekimena da, Bizi-Hitzaren balioak sinesmenik ez duten lagunekin partekatze sortua. Bizi-Hitza, Mugimenduko kideek ekintzan jartzeko konpromisoa hartzen duten Eskritura Santuetako esaldia da. HILEKO IDEIA 12 hizkuntzatara itzultzen da gaur egun, eta 25 herrialdeetan baino gehiagotan banatzen da, testua kultura sentsibiltate desberdinen arabera moldatuz. www.dialogue4unity.fokolare.org